

# Irakurzaletasuna eta euskara uztarturik

Altzako institutuko irakasleak joan den urtetik ari dira euskarazko literatur solasaldiak egiten. Hilean behin, gutxi gorabehera, euskal idazle baten liburu bat aukeratzen dute eta irakurri ondoren, liburuari buruz hitz egiteko elkartzen dira.

Sara Soria



Institutuko irakasle Bittor Fernandezek azaldu digunez, bi arrazoirengatik ekin zieten literatur solasaldiei: batetik, gustuko zituzten liburuak irakurtzeko eta haizetaz hitz egiteko gogoia zutelako eta bestetik, mintzamina lan-tzea beharrezkotzat jotzen zutelako. "Azken urteetan irakasle batzuk IRALEn euskaldundu dira, baina hala ere, kexu dira, ez baitute hortik kanpora euskaraz egiteko aukera handirik. Hortaz, irakurzaletasuna eta mintzapraktika uztartzearen, literatur solasaldiak antolatzen hasi ginen", dio Fernandezek.

## Saizarbitoria, Landa...

Hamabi irakasle inguru elkartu ohi dira solasaldietan. Irakasleok ez dute irizpide finikorik liburuak aukeratzekoan. Ekimena hasi zenetik, besteak beste, Ramon Saizarbitoriaren "Gorde nazazu lurpean", Xabier Montoiaren "Gasteizko Hondartza" eta Josu Landaren "Odolbilda" izan dituzte hizpide. Antton Juaristi irakaslearen hitzetan, "Josu Landare-

na, esaterako, auzotarra delako aukeratu genuen".

Orain arteko azken solasaldia otsaila hasieran egin zuten eta Unai Elorriagaren "Sprako tranbia"-ri buruz mintzatu ziren. 2002an, Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazitako

**Hamabi bat irakasle elkartu ohi dira solasaldietan**

eleberria, oro har, gustuko izan zuten institutuko irakasleek, batez ere, idazle bizkaitarraren lehen liburua dela aintzat hartuta. Dena dela, ziur daude Elorriagak geroan liburu hobek idatziko dituela.

Datorren solasaldian Joan Mari Irigoienen "Ipuin batean bezala" izango dute mintzagai. "Joan Mari ere auzotarra dugu, baina, batik bat, bere azken liburuko istorioa Altzan bertan girotuta dagoelako aukeratu dugu", esan digu Antton Juaristi irakasleak.

## Egunkariaren aldeko Herri Batzordea martxan



Joan den asteazkenean, Euskaldunon Egunkariaren aldeko Herri Batzordea sortzeko bilera egin zen Casares kultur etxean. Egunkaria-ko hainbat langilek parte hartu zuten bertan, eta hermendik aurrera eman beharreko urratsez hitz egin zuten.

## euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Bertsolaritza

- Bertsolari Gazteentzako IX Orixe Sariaren finala  
I. Zelaia, E. Eizagirre, I. Manzisidor, A. Zerain, Andoni eta Asier Otamendi  
Martxoaren 16an, 11.30etan  
Añorgako Antxon Aiestaran Kultur Etxean

## Haur

## antzerkia

- "Pinotxo"  
Dar-dar  
Martxoaren 15ean, 18.00etan  
Lugaritz Kultur Etxean
- "Galtzagorriak"  
Txotxongillo taldea  
Martxoaren 15ean, 18.00etan  
Altza Kultur Etxean

## Pailazoak

- "Hau desastrea, zenbat traste!"  
Kike, Blas eta Jonas  
Martxoaren 22an, 18.00etan  
Intxaurren Berri Kultur Etxean

## Musika

- Hain zuzen  
Tapieta eta Leturia  
Martxoaren 14an, 20.00etan  
Lolola Kultur Etxean Etxean

euskaraz.net